

2021/05/11

ARABA EUSKARAZ TONBOLARAKO MATERIAL BILKETA

HUSTU GANBARAK ETA ARMAIRUAK IKASTOLAREN ALDE!

Araba Euskaraz egunean TONBOLA ERRALDOIA antolatuko dugu elkartasuna eta diru bilketa uztartuz.

Horretarako, Ikastolako komunitate osoari ekimenean parte hartzeko deialdia luzatzen dizuegu: ekarri Ikastolara etxean erabiltzen ez duzuen baina oraindik erabilgarri diren liburu, opari, mozorro, jolas zein bestelako tresna eta tramankuluak. Tonbolako sari zerrenda osatuko dugu beraiekin.

Ekimenean lagundu dezaketen bestelako kontaktuak eskaintzea ere eskertuko dugu, propaganda opariak edo bestelako ekarpenak egiteko prest egon daitezkeen norbanako eta enpresen kontaktuak alegia, edota pertsona ezagunek izenpetutako kamisetak edo bestelakoak eskuratzeko kontaktuak.

MATERIALEN BILKETA

Materialen bilketa gelatan egingo dugu maiatzaren 21 arte. Ekarpen guztiak



poltsa itxietan ekarri beharko dira gelara.

Bolumen handikoen berri emateko edo kontaktuak eskaintzeko idatzi posta elektronikoa honetara:

arabaeuskaraz@ehi.ikastola.eus

Ez galdu aukera, hustu ganbarak eta armairuak Ikastolaren alde!